



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 26a

138. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatioak gauzatzeko aldera. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, heldu den Nafarroaren Eguneko ekitaldietan Espainiako ereserkia jotzeari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarduera egin dituen Nafarroako Gobernuak Antsoain klinikara bideraturiko pazienteen eta klinika horretako bezero pribatuen askatasuna eta izen ona babeste aldera, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria dela-eta, eta zein izanen den greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak udalei ez dizkien ordaindu berdintasuneko teknikarien kontratazioa finantzatzeko 2013an hitzartutako zenbatekoak, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Guardia Zibilak irakasleei buruz prestatutako txostenari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (7. or.).
- Galdera, NA-1700 errepideko 0,2 kilometro-puntuko bide-seinaleari buruzkoa, Leitzako herriaren izena gaizki idatzita baitago. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, PFEZeko, sozietateen zergako eta ondarearen gaineko zergako zergadun-kopuruak 2011tik 2012ra izandako aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzako ikastetxeetan 2013-2014 ikasturterako planti-llak egitean Hezkuntza Departamentuak baliatutako irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Miguel Esparza Oroz jauna Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi izendatzea (14. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioak gauzatze aldera.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioak gauzatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2013ko azaroaren 14ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroak laster ekin behar dio Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berri, gaurkotu edo aldatzeko negoziatioari, gaur egungoa 2010etik 2014ra bitarteko bosturtekorako baita. Negoziatioak beti izan direla konplexuak onar daitekeen arren, egia da, orobat, egungo koiuntura delikatu

dela eta aurkakotzat ere jo daitekeela. Negoziatioan esku hartzen duten alderdien arteko asimetria; Estatuaren joera birzentralizatzailea –krisia birzentralizatzeko aitzakia gisa darabilena ematen du–; foru lurraldeen zerga-araubideen aurkako eraso politiko eta mediatikoak ugaltzea... elementu horiek guztiek distortsionatu egiten dute negoziatioa, zeina muntakoa izanen baita zenbait arlotan; esate baterako, Nafarroak egin beharreko ekarpena zehaztea, BEZaren doikuntza, zerga-figura berriak sartzera eta horien arteko elkarguneak edo zerga-eremuen arteko koordinazioa eta horrek Europako erakundeetan duen isla.

Politikak garatzeari begira –zerga eta ekonomia arlokoak, baina baita sozialak eta bestelakoak ere– Hitzarmen Ekonomikoa duen garrantzia ikusita, eta Nafarroak gaur gaurkoz duen autogobernu-ahalmenaren beraren muinari eragiten dionez, ematen du komenigarria ez ezik beharrezkoa ere badela Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten indar politikoen negoziatio prozesuan parte hartzea. Egungo Gobernua gutxiengoan egoteak premiazkoa bihurtzen du beharizan hori. Kontua ez da inolako berritasunik sartzera, negoziatioa behin baino gehiagotan egin izan delako aniztasuneko osaera zuen batzorde negoziatzaile baten bidez. Horrek halako babes bat emanen lieke lor litezkeen emaitzei, politikoki oso bestelakoa lege bat oneste hutsetik, zeina Parlamentura aldatzeko aukera praktikoa gutxiarekin helduko bailitzateke.

Mozio honen jatorrian dagoen jabelduraren eztabaidan ezin izan zen argi eta garbi hauteman Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen horri buruz.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioak gauzatzeko aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren mekanis-

moak ezar ditzan, Legebiltzarra aldiro eta behar bezala informatuta egon dadin negoziazioen bila-kaerari buruz.

Iruñean, 2013ko azaroaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko azaroaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio atzera egin dezan Osasun Mentaleko eta drogamenpekotasun-tratamen-

duetako itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan, eta orain arteko baremoa mantentzeko dezan –alderdi teknikoa, % 60ko balioa; alderdi ekonomikoa, % 40koa–, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanpostuak subrogatzeko klausula mantentzeko dezan Osasun Mentaleko eta drogamenpekotasun-tratamenduetako zerbitzuen lizitaziorako baldintza-orrietan".

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, heldu den Nafarroaren Eguneko ekitaldietan Espainiako ereserkia jotzeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, heldu den Nafarroaren Eguneko ekitaldietan Espainiako ereserkia jotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak heldu den Nafarroaren Eguneko zer ekitalditan aurreikusten du joko dela Espainiako ereserkia, honela ekitaldi solemneetan ereserki hori jotzeko Parlamentuaren agindua betetzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakitekoa zer jarduera egin dituen Nafarroako Gobernuak Antsoain klinikara bideraturiko pazienteen eta klinika horretako bezero pribatuen askatasuna eta izen ona babeste aldera.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer jarduera egin dituen Nafarroako Gobernuak Antsoain klinikara bideraturiko pazienteen eta klinika horretako

bezero pribatuen askatasuna eta izen ona babeste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, azaroaren 28ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Antsoain klinikara beren haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea baliatzeko joaten diren pazienteak presioak eta irainak jasaten ari dira

–lagunarteko hizkeran, *escracheak*–. Kasu askotan, osasun-sistema publikoko pazienteak dira, klinika horretara bideratuak, eta beste kasu batzuetan, berriz, klinika pribatu horretako bezeroak. Nafarroako Gobernuak inolako jarduketarik egin al du, egiten ari al da edo egingen al du, paziente horien askatasuna eta izen ona babesteko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria dela-eta, eta zein izanen den greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria dela-eta, eta zein izanen den greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den azaroaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Ikusita Nafarroan anbulantzia-zerbitzuak greba iragarri duela eta larrialdiak artatzeko zerbitzuetan gertatzen diren atzerapenak frogaturik daudela, zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak gatazka eta herritarrentzako zerbitzurik eza ekiditeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak udalei ez dizkien ordaindu berdintasuneko teknikarien kontratazioa finantzatzeko 2013an hitzartutako zenbatekoak.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak udalei ez dizkien ordaindu berdintasuneko teknikarien kontratazioa finantzatzeko 2013an hitzartutako zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Etxeberriak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilariak heldu den azaroaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zergatik ez dizkie udalei ordaindu berdintasuneko teknikarien kontratazioa finantzatzeko 2013an hitzartutako zenbatekoak?

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Guardia Zibilak irakasleei buruz prestatutako txostenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Guardia Zibilak irakasleei buruz prestatutako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak diosenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan prentsan argitara eman den hainbat informazioaren arabera, Guardia Zibilak txosten bat egin omen du hezkuntzako irakasleen inguruan, eta bertan irakasleen filiazio ideologiko edo politikoak aztertu omen ditu. UPNk, honen harira, legezko ekimenak abian jartzeko asmoa agertu du. Hortaz, UPNk informazio honi eman dion sinesgarritasuna ikusita, Nafarroako Gobernuari honako galdera egin nahi dio parlamentari honek:

Nafarroako Gobernuak ba al du hezkuntzako irakasleen inguruan Guardia Zibilak egin omen duen txostenaren berri? Ezagutzen al du? Eta hala bada, Guardia Zibilak berak edo beste erakunderen batek nolabaiteko informaziorik eskatu al dio? Hala bada, zein motatako informazioa?

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, NA-1700 errepideko 0,2 kilometro-puntuko bide-seinaleari buruzkoa, Leitzako herriaren izena gaizki idatzita baitago.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NA-1700 errepideko 0,2 kilometro-puntuko bide-seinaleari buruzkoa, Leitzako herriaren izena gaizki idatzita baitago. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak informazioa eskatu du NA-1700 errepideko 0,2 kilometro-puntuko bide-seinaleari buruz, Leitzako herriaren izena gaizki idatzita baitago (PES-146/13). Hauxe erantzun dio Sustapeneko kontseilariak:

Parlamentu-galderan aipatutako bide-seinalea orientaziorako kartela da, Lekunberrietik Leitzarako NA-1700 errepidean lehen aldiz abisatzen duena hurbil dagoela Irurtzundik Gipuzkoako mugarainoko NA-1300 errepideko 14+800 kilometro-puntuko biribilgunea.

Biribilguneak gaur egun 5 sarrera ditu, erantsitako fitxategian ageri denez:

- NA-1700 “Lekunberri-Leitza”
- NA-1300 “Irurtzun-Gipuzkoako muga” iparraldea.
- NA-1300 “Irurtzun-Gipuzkoako muga” hegoaldea.
- NA-7562 “Lekunberriko saihebidetako Albiasu”

- Lekunberri iparraldeko lotunea (A-15 “Leitzarango autobia”).

Biribilgune hori Leitzarango autobia berririk saihebidetako obren esparruan eraiki zen eta 1991ko apirilean jarri zen zerbitzuan, lau adar zituela. Lekunberriko saihebidetik Albiasu NA-7562 errepide berria 2008ko abenduan amaitu zen, hura ere biribilguneari lotuta.

Parlamentu-galderan aipatutako panelak, “Leiza” dioen horrek, ez du atzealdean inolako inskripzioarik noiz jarri zen adierazten duenik. Beraz, 1991ko martxokoa dela ondorioztatu behar da.

“Leiza”ren ordez “Leitza” izen ofiziala onetsi zuen aldaketa 1989ko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 30ekoan. Beraz, kartela jarri zenean izen berria jada indarrean zegoen.

Kartela jarri zen unetik jarduketara okerra izan zenez, kasu honetan ez da aplikagarria “Nafarroako errepide sarean errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jartzeari buruzko Jarrabidea”, Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 25eko Erabakiaren bidez onetsitakoa. Bertan ezarrita dago kontsebazio eta mantentze arrazoiengatik aldatu behar direla errepideetako errotuluak.

Horregatik guztiagatik laster zuzenduko da aipatutako errotulua, herriaren oraingo izen ofiziala, “Leitza”, jarriz. Dagoeneko agindua eman zaio Nafarroako errepide sareko seinale bertikalak mantentzeko ardura duen enpresari, errotulua berehalda aldatu dezan. Biribilguneko gainerako sarreretara iritsi aurretik dauden abisu-karteletan eta bidegurutze horretatik irteteko geizietan herriaren oraingo izen ofiziala ageri da.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruz (PES-139). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Gastu-sabaia zehaztea Nafarroako Gobernuaren eskumen berekia eta eskusiboa da (Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen 34.1 artikulua), eta logikoa da hala izatea, berak igortzen baitio Parlamentuari aurrekontu

orokorreari buruzko foru legearen proiektua (aipatutako legearen 36.3 artikulua).

Gure antolamendu juridikoan xedatutakoari erreparatzen badiogu, ez dago inolako aukerarik Parlamentuan eztabaida egiteko Gobernuak foru legearen proiektua aurkeztu aurretik. Izan ere, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 126.2 artikulua arabera, aurrekontuei dagokien legegintzako ekimena Nafarroako Gobernuari dagokio bakar-bakarrik.

Ongi dakizunez, aurrekontuen proiektua eta zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko proiektua Parlamentuan eztabaidatu behar dira. Gobernuak, ohi duenez, laster bidaliko ditu proiektu horiek Legebiltzarrera.

Ondoren egin litekeen parlamentu-izapidea beti egin ohi den bezalakoa da, iragan urriaren 17ko bilkuran Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean azaldu zen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, PFEZeko, sozietateen zergako eta ondarearen gaineko zergako zergadun-kopuruak 2011tik 2012ra izandako aldaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PFEZeko, sozietateen zergako eta ondarearen gaineko zergako zergadun-kopuruak 2011tik 2012ra izandako aldaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du PFEZeko, sozietateen zergako eta ondarearen gaineko zergako zergadun-kopuruak 2011tik 2012ra izandako aldaketari buruz (PES-144). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

PFEZean:

	2011ko PFEZa (2012ko abuztuko datuak)	2012ko PFEZa (2013ko abuztuko datuak)
Aitorpenen kopurua	334.162	327.560
Tributu zorra, guztira	-90,5 milioi €	-122,2 milioi €

Ondarearen gaineko zergan:

	2011ko ondarearen zerga (2012ko abuztuko datuak)	2012ko ondarearen zerga (2013ko abuztuko datuak)
Aitortzaileen kopurua	5.481	10.507
Sartzeko kuota, guztira	36,1 milioi €	47,2 milioi €

Sozietateen zergan:

	2011ko sozietateen zerga. Nafarroako araudia: S90 eta 220 ereduak (2013ko apirileko datuak)	2012ko sozietateen zerga Nafarroako araudia: S90 eta 220 ereduak (2013ko abuztuko datuak)
Aitorpenen kopurua	15.809	15.751
Tributu zorra, guztira	36 milioi €	38 milioi €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako Errekoleten eraikinari buruz (PES-00133). Hauxe eran-

tzun dio Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernua eta Tafallako Udala etengabeko elkarrizketan ari dira Tafalla hiriko historia eta kultura-azpiegituren balizko aprobe-txamenduen inguruan, betiere aurrekontuko baliabideak kontuan hartuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urrian

Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzako ikastetxeetan 2013-2014 ikasturterako plantillak egitean Hezkuntza Departamentuak baliatutako irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzako ikastetxeetan 2013-2014 ikasturterako plantillak egitean Hezkuntza Departamentuak baliatutako irizpideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera hau egin du (8-13/PES-00147):

“Hezkuntza Departamentuak zer irizpide baliatu ditu Nafarroako unibertsitatez besteko ikaste-

txeetako 2013-2014 ikasturteko plantillak taxutzeko, irakasleen lanaldiari eta ordutegiari eta gehieneko ratioei dagokienez? Zer arauditan oinarritzen da? Zehazki:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan aplikatu den gehieneko irakasle/ikasle ratio orokorra, eta, zehazki, A ereduko euskarazko taldeei eta erlijio eskolei aplikatutakoa, bai eta Bigarren Hezkuntzan ere.

- Lehen Hezkuntzako irakaskuntza publikoan 25 ikasleko ratioa gainditu duten ikasgelen kopurua.

- Hezkuntza-premia bereziko ikasleen kontabilizazioa ratioan.

- Irakasleen zuzeneko irakaslaneko gehieneko lanaldia eta konpentsazioak, lanaldi hori gainditzeko kasuetan.

- Ordu-kompentsazioak, ikastetxe bat baino gehiagotan dabilzan irakasleentzat edo ardurak dituztenentzat, zuzendaritza taldeetakoak kenduta.”

Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

1) Ikastetxe publikoen funtzionamendurako 2013-14 ikasturteko plantillak taxutzeko erabilitako irizpideak indarra duten lege-xedapenetatik hartu dira, eta, araudian jasorik ez dauden gaietan, Hezkuntza Departamentuaren irizpide osagarriak erabili dira.

2) Lehenbiziko kasuan, jada ezagunak diren araei (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa, lanaldiari eta ordutegiari buruzko foru dekretua, hezkuntzako etapak arautzen dituzten foru dekretu eta foru aginduak, euskarari buruzko araudia, IIP-PAI, Lanbide Heziketa, Hezkuntza Berezia etab.) beste arau bat gehitu behar zaie: apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua, hezkuntzako gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzkoa.

3) Esandakoaren ondorioz irizpide jakin batzuk erabiltzen dira, jada aurreko ikasturtean (2012-2013) irakasleen mahai sektorialean aztertu zirenak eta behinola Nafarroako ikastetxe guztietara bidali zirenak. Hezkuntza Departamentuak osorik eutsi die irizpide horiei 2013-14 ikasturteko irakasle plantillak egiteko. Irizpideok eranskin honi erantsi zaizkio eta, ikus daitekeenez, zehatz jorratzen dituzte ikasle/talde ratioak eta irakasleen lanaldia hezkuntzako etapa guztietan.

4) Bigarrenik, adierazi beharra dago gainerako irizpideak, eranskinean jaso ez direnak, ikasleen arretarako ordutegiari loturikoak batik bat (Haur Hezkuntzako laguntza, zuzendaritzaren laguntza, aniztasunaren arretarako orduak, tutoretzat, bikoizketak, landa-eskola, etab.), aurreko ikasturteko berak izanen direla. Hau da, 2007-2011 aldirako Hezkuntza Itunean ezarritako hobekuntzak mantendu dira (nahitaezkoa ez izan arren).

5) Hizkuntza-ereduetako eta erlijioeko edo hezkuntza-arretako taldeei dagokienez kontuan hartu behar da ikasleei legez bermatzen zaizkien aukerak direla. Familiek nahi dutena hautatzen dute eta ikastetxeek nahitaez eman behar diete. Hortik abiatuta eta ikastetxe bakoitzaren antolaketak-aukeren arabera kasuan kasuko talde egokiak egiten dira (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa, Euskarari buruzko Foru Legea eta garapenerako foru dekretu eta aginduak).

6) Esan bezala, Lehen Hezkuntzan gehieneko ratioa taldeko 27 ikaslekoa da. Beraz, ez da egokia 25 ikasleko ratioa gainditu duten ikasgelen kopuruaz hitz egitea. Baina baieztatu daiteke talde batek ere ez duela gainditzen aipatutako 27 ikasleko ratioa.

7) Goian adierazi denez, aniztasunaren arretarako neurriak errespetatu egin dira eta ildo horretan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, Nafarroako Hezkuntza Bereziako Baliabideen Zentroko zentsuan daudenak, bi aldiz zenbatzen dira taldeko ikasleen ratioaren konputuan, lehen bezala. Hori Haur eta Lehen Hezkuntzan aplikatzen da.

8) Irakasleen irakaskuntza lanaldia eranskinean ageri da. Bigarren Hezkuntzan, salbuespena (22 h) gertatzen den kasuetan eman beharreko konpentsazioak Ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen 225/1998 Foru Dekretuan (229/2002 eta 27/2012 foru dekretuen bidez aldatua) daude jasorik.

9) Ikastetxez ikastetxe dabiltzan irakasleentzako ikastordu-kompentsazioak 2007-2011 aldirako Hezkuntza Itunean bezala mantendu dira (nahitaezkoa ez izan arren).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

I. ERANSKINA (mahai sektoriala)

IKASTETXE PUBLIKOETAKO PLANTILLAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK 2012-2013 IKASTURTERAKO

1.- RATIOAK

Arau orokor gisa hauxe izanen da ikasle/talde ratioa:

a.- Haur Hezkuntza:

– 3 urte: 25 ikasle taldeko

– 4 urte: 26 ikasle taldeko

– 5 urte: 27 ikasle taldeko

b.- Lehen Hezkuntza: 27 ikasle taldeko.

c.- DBH: 32 ikasle taldeko.

d.- Batxilergoa: 35 ikasle taldeko.

f.- Gainerako ratioak (LH, AGMP, HLPP, HLPPB, CEU, Curriculum Aniztasuna) ez dira aldatu.

g.- Ikasturte bakoitzaren hasieran zehaztutako taldeak ez dira aldatuko, salbu eta ikasleen kopuruak taldeen handitze-portzentajea gainditzen badu % 10eko aldeaz.

2.- IRAKASLEEN LANALDIA.

a.- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistrak: irakas-ordutegiaren barruan zuzeneko 25 eskola emanen dituzte.

Haur Hezkuntzako tutoreen zuzeneko eskoletatik, beren taldeari eskaini behar ez dizkietenak ikastetxeari dagokion Haur Hezkuntzako laguntzaren barruan zenbatuko dira.

b.- Gainerako ikastetxe publikoetako irakasleak:

– Lanaldi osoa duten irakasleen irakas-ordutegia oro har astean 20 ordukoa izanen da. Salbuespenez 22 ordukoa izan daiteke, gehienez ere.

– Aurreko atalean ezarritakoaren salbuespen gisa, Lanbide Heziketako heziketa-ziklo “luzeetan” ari diren eta hirugarren hiru hilabetean LPko ordute-

gia duten irakasleek, hiruhileko horretan irakaskuntza zuzeneko ordutegia laburtuko zaieenez, hasieran astean 22 irakastorduko lanaldia izanen dute. Era berean lanaldi luzapen hori aplikatuko zaie kontserbatorioetako musikari laguntzaileei.

– Ikastetxeen funtzionamendu egokirako behar adina zaintza ordu egin daitezen, plangintza instituzionaleko tresnak taxutu edo berrikusteko lanetarako eta prestakuntzarako hartzen diren asteko konputuko bi ordu osagarriak hileko konputuko asteko ordu osagarri bilakatuko dira.

c.- Irakastordu-soberakinaren konpentsazioa: baldin eta, antolaketa arrazoiengatik, irakasle kidego bakoitzarentzat ezarritako irakaskuntza zuzeneko orduak gaintitzen badira, beste hainbeste ordu osagarriekin konpentsatuko dira.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Miguel Esparza Oroz jauna Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren kargua hutsik gelditu da eta, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 71.3 artikulua xedatutakoarekin bat, bete egin behar da.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak proposatuta, hauxe ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi eta idazkari nagusi izendatzea Legebiltzarreko legelaria den Miguel Esparza Oroz jauna.

2. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

